

BERRIZTARRA

2011ko AZAROA



berrizko
U D A L A

ZERTAN DABIZ BERRIZUBURUN?

Futbol zelaia eta belodromoaren alboan obrak dira nagusi aspaldian. Berrizburuko kirol eta jokoen parke berriak bultzada berria hartu du ikasturte honetan. Eguraldiari begira luze joan dira hondakinen zaborategia zigilatzeke lanak.

udal

erabakiak

● Ez-ohiko bilkura: uztailak 7 julio

Onartutakoa

- Ohiko udal bilkurak hilean behin, hileko bigarren asteazkenetan, izango dira; 19:00etan.

- Batzorde informatiboen izendapena eta osaketa.

- Udaleko ordezkarien izendapena kide anitzeko organoetan. Proposamen bi aurkeztu dira: **1go proposamena:** Alde 5 EAJ + 1 PSE eta Kontra 5 Bildu / **2. proposamena:** Alde 5 (Bildu), Kontra 5 (EAJ) eta Abstentzioa 1 (PSE).

- Alkatearen erabateko dedikazioa mantentzea. Proposamen bi aurkeztu dira. Bozketa bietako emaitza parekoa. Alkatearen kalitatezko botuarekin onartua.

● Ohiko bilkura: irailak 14 septiembre

Onartutakoa

- Aurrekontuetako kreditu aldaketen transferentzia. Aho batez.

- Zinegotzien diru-ordainen zenbatekoa: Proposamen bi aurkeztu dira. **1. proposamena:** alde 5 EAJ eta 1 PSE, kontra 4 Bildu eta abstentzioa 1 Bildu. **2. proposamena:** alde 4 Bildu, kontra 5 EAJ eta 1 PSE, eta abstentzioa 1 Bildu.

● Ohiko bilkura: urriak 19 octubre

Onartutakoa

- Kreditu transferentzia aldaketa proposamena. Aho batez.

● Ez-ohiko bilkura: urriak 26 octubre

Onartutakoa

- 2011ko Gorte Nagusietarako hauteskundeetarako mahaien zozketa.

- 2012an aplikatuko diren ordenantza fiskalen moldaketa. Aho batez.

Udal bilkuretako aktak, udalbatzak onartutakoan, www.berriz.org kontsultatu daitezke. / Las actas de las sesiones plenarias, se pueden consultar en la web www.berriz.org una vez aprobadas por la corporación"

Hurrengo batzarrak:
Abenduak 14, urtarrilak 11.
Aktak: www.berriz.org

CAMBIOS EN LAS ORDENANZAS FISCALES

Por unanimidad la corporación ha aprobado congelar la mayoría de los impuestos para el año 2012, pero aplicará una subida del 2,5% en el IBI y tasas de recogida de basura y servicios deportivos. En el apartado de bonificaciones se han incluido nuevos criterios.

Desde el año 2007 no se actualizaba el convenio de las empresas de servicios deportivos y este año ha subido un 14%; por lo que ha subido en un 2,5% la tasa en estos servicios. A su vez, también han subido los gastos de la recogida de basuras y, teniendo en cuenta que Berriz tiene la tasa más baja de la comarca, se ha decidido aplicar la misma subida.

EJEMPLOS DE LA SUBIDA

Hasta ahora la tasa de recogida de basuras se ha pagado 68,44 € al año, en el caso de viviendas urbanas. A partir del 2012 se abonará 70,20 €. La subida, en total, ha sido de 1,76€; 0,44 euros trimestrales.

En cuanto a la tasa de servicios deportivos, el bono familiar anual se paga 138,34 euros. Después de aplicar la subida, durante 2012 se abonará 3,46 euros más al año. El bono trimestral es de 50,27 euros y a partir del año que viene será 1,28 euros más caro.

BONIFICACIONES

En las bonificaciones aplicables en impuestos y tasas se tendrán en cuenta nuevos criterios.

En el Impuesto de Bienes Inmuebles hasta ahora existía un único epígrafe por el que todas las familias numerosas se beneficiaban con un 50%. A partir del próximo año se tendrán en cuenta las dos tipologías de familia numerosa, la especial y general, y las bonificaciones oscilarán entre el 20 y 90%. También se bonificará a los propietarios de una vivienda vacía que decidan alquirlársela a jóvenes del municipio.

En el Impuesto de Tracción Mecánica se bonificarán los automóviles con movilidad de energía eléctrica, solar o no contaminantes en un 75% y a los vehículos híbridos en un 50%. A su vez, recibirán una bonificación del 90% las instalaciones, construcciones y obras que utilicen nuevas energías y faciliten la movilidad.

DÍPTICO INFORMATIVO

Los cambios en la ordenanzas fiscales fueron aprobadas por unanimidad por la corporación municipal. A su vez, todos los partidos políticos representados resaltaron la necesidad de hacer públicas y dar a conocer a la ciudadanía con más detalles los impuestos, tasas y sobre todo las bonificaciones que se recogen en la ordenanza que se aplicará a partir del 1 de enero del 2012.

ZINEGOTZIEN ORDEZKARITZA

Badira hilabete batzuk udalbatza berria eratu zenetik eta datozen lau urteetarako udal ordezkariak, zinegotziak, euren ibilbidea hasi zutenetik. Orri honetan, zinegotzi ba-koitzak hartu dituen ardura nagusiak daude jasota.



ROLANDO ISOIRD

EAJ Alkatea

Batzorde informatibo guztietako buru / Presidente de todas las comisiones informativas.

Berrizen ordezkari / Representa a Berriz en: Bilbao-Bizkaia Ur Patzuergoa (Consortio de Aguas Bilbao-Bizkaia), Erralde Durangoko Hilturgia S.L. eta Eudel



XABIER ZALDUA

BILDU

Bozeramailea / Portavoz: Bildu

Kirola, Hezkuntza eta Gazteria batzordea / Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, eta Ingurumen batzordea (Deportes, Educación y Juventud / Urbanismo, Obras y Servicios, Medioambiente)



JOSU ALBIZURI

BILDU

Kultura, Euskara eta Jaiak batzordea / Kirola, Hezkuntza eta Gazteria batzordea (Cultura, Euskara y Fiestas / Deportes, Educación y Juventud). Berrizen ordezkari / Representa a Berriz en: Urkiola Landa Garapenerako Elkarte eta Urkiola Turismo Patzuergoa



MAITE LOPEZ

BILDU

Gobernazio eta Kontu batzordea / Kultura, Euskara eta Jaiak batzordea (Gobernación y Cuentas / Cultura, Euskara y Fiestas)



PURIFICACION PEREZ

BILDU

Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, eta Ingurumen batzordea (Desarrollo local socio-económico / Urbanismo, Obras y Servicios, Medioambiente)



LEIRE HUERTA

BILDU

Gobernazio eta Kontu batzordea / Giza-arte-ekonomia garapenerako batzordea (Gobernación y Cuentas / Desarrollo local socio-económico)



FCO. JOSE DEL PINO

PSE

Bozeramailea / Portavoz: PSE

Miembro de todas las comisiones informativas. Berrizen ordezkari / Representa a Berriz en: Bilbao-Bizkaia Ur Patzuergoa (Consortio de Aguas Bilbao-Bizkaia)



BEGOÑA NAVARRO

EAJ

1. alkateordea.

Bozeramailea / Portavoz (EAJ)

Kirola, Hezkuntza eta Gazteria batzordea / Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, eta Ingurumen batzordea (Deportes, Educación y Juventud / Urbanismo, Obras y Servicios, y Medioambiente)



AINHOA LARRAÑAGA

EAJ

2. alkateordea

Kultura, Euskara eta Jaiak batzordea / Giza-arte-ekonomia garapenerako batzordea (Cultura, Euskara y Fiestas / Desarrollo local socio-económico)



AITOR AGUIRRE

EAJ

Gobernazio eta Kontu batzordea (Gobernación y Cuentas)




MIGUEL ANGEL AGUADO

EAJ

Kirola, Hezkuntza eta Gazteria batzordea / Giza-arte-ekonomia garapenerako batzordea (Deportes, Educación y Juventud / Desarrollo local socio-económico) Berrizen ordezkari / Representa a Berriz en: Learreta Markina ikastetxea, Berriz Institutua eta Haurreskola

Aisialdirako gunea izango da Berrizburuko zabortegia

Berrizburuko zabortegia berriztarren atsedenaldirako eta aisialdirako parke legez atontzea izan da hasieratik Udalaren helburua. 2007an ekin zion proiektuari. Zabortegia bera zigilatzeke lanek uste baino gehiago atzeratu dute, baina datozen hilabeteetan bultzada berria izango du.



Parkea

Korapilatsua izan da zabortegiaren zigilatzea. Hasieran, Eusko Jaurlaritzatik lana egiten hasteko baimena atzeratu egin zen. Ondorioz, proiektuaren bigarren aldi batean eraikitzeke asmoa zegoen frontoiak egiteari ekin behar izan zitzaion. Bitartean, zigilatze lanetarako baimena heldu arren, eguraldiak ez du askorik lagundu. Zigilatzeke prozesuaren konplexutasunagaitik eguraldi sikua behar da egon eta sarri denbora luzez egon dira geldirik lanak egin duelako.

Orain, hilabeteke lan erreala dago zabortegia erabat zigilatzeke. Baina, eguraldiaren menpe egongo dira lanak aurrera ateratzeko.

Berrizburu ingurua aisialdi gune modura berreskuratzeke lanean, besteak beste,

Garbiker zabortegia kudeatzen duen enpresak zeresan handia izan du. Zigilatzeke dagokion kostu guztia bere gain hartu du eta parkean zehar egingo den pasealekua egiteke ardura ere berak hartuko du. Udalak berak, parkeko gune diferentetarako egiteke lanak ordainduko ditu. Hala ere, ia proiektuaren erdia erakunde publikoetatik eta finantziarioetatik jasotako dirulaguntzen bitartez finantziatzea espero du.

KIROL ETA AISIALDI PARKEA

Guztira, 74.000 metro koadroko azalera dauka Berrizburun berreskuratuko den gunea. Bertan, kirol eta aisialdi parkea egingo dira. Dagoeneko, frontoi bi eraiki dira: bi hormakoa bata eta Iparraldekoen antzera, horma bakarrekoa bestea. Orain, kirol antzetarako gunea egiten dabilta.

Zigilatzea erabat amaituta dagoenean, pertsona nagusiei zuzendutako ariketa fisikoen zirkuitoa egingo da. Horrekin batera, umeentzat jolaslekua ipiniko da. Eta amaitzeke, herri-kiroletarako gunea atonduko dute: probetarako karrajoa, bolotokia, trontza, harrijasotze, lasto altxatze, gurdi-eroatea,...

Gainontzean, parkeak biltegia, iturriak, bizikleta eta kotxeentzat aparkalekua izango ditu. Asmoa, Berrizburun oinezkoek lehen-tasuna izatea da. Ospakizun edota ekitaldi bereziak izaten direnetarako ere, taberna egokitzeko aukera aurreikusita dago proiektuan.

Esaterako, San Juan sua Berrizburun egiten jarraituko da, horretarako ere lekua diseinatu da.

ZIGILATZEA PAUSUZ PAUSU

Berrizburuko inerteen zaborte-gian, Garbikerrek kudeatuta, 1994tik 2008ra jaso zituen hondakinak. Hurrengo bi urteetan zabortegiaren zigilatzeari zegokion proiektua egin zen. 2010eko udazkenean lanak esleitu ziren eta 2011ko martxoan ekin zitzaizaien zigilatze lanei. Garrantzitsua da kontuan hartzea, lanotarako eguraldi sikua beharrezkoa dela. Zigilatze lanak Terranovak idatzi eta Otaduy enpresa egiten dabil. 9 fase dife-rente ditu lan guztiak:



1.Egokitzea: Proiektuan jasota dagoenari jarraituz, zigilatze egokia egin ahal izateko hondakinen masa prestatzen hasi behar da, ezpondak eta bermak sortuz.

2.Erregularizatzeo lurrak: Betegarria sortu ondoren, buz-tinezko lurra gehitzen zaio geosintetikoak jartzeko eta zigilatzearen lehenengo geruza egiteko.

3.Lixibiatuen drainatzea eta aireztatzea: Hezetasunak edota zigilatua amaitu aurretik izandako euri lixibiatuak jasotzeko, drainatzerako hodi sare konplexua eraiki behar da. Sarea zigilatzearen azpitik egiten da eta aireztatze sistema berezia dauka.

4.Geosintetikoak: Erregularizatzeo lurren gainean, hiru geosintetiko mota jartzen dira; horietako bi iragazgaitzen funtzioa beteko dutenak eta hirugarrena drainatzerako. Aldapa handiko lurretan, errefortzurako laugarren sarea ere jartzen da.

5.Uren drainatzea: Euri urak ez dira lur-betegarrietara filtratzen. Ondorioz, hodi eta kutxatila sareen bidez ur horren kontrola bide-ratzen da.



6.Lehengoratzeko lurrak: Geo-sintetikoaren gainetik ingurunean landa berreskurapenerako lurra botatzen da.

7.Amaierako lurrazala: Zabor-tegiko azken lurrazala belar eta arbolez, eta bidezidorrez osotutako lurzorua izango da.

8.Beste lan batzuk: Ingurua atontzeko bidezidor eta hirigintza lane-kin batera, zabortegiaren mentenu eta kontrolerako gunea ego-Kitzea

9.Hurrengo 30 urteetan, zigilatzearen mantenu eta kontrol lanak egingo dira; drainatzeak, geosintetikoak, hodi eta kutxatilen sa-reak aldiro aztertuko dira.

Berrizburu pendiente del sellado del vertedero

El proyecto de recuperar Berrizburu como zona de esparcimiento y de ocio para el municipio está siendo más costoso de lo previsto. Desde que el Ayuntamiento empezó a trabajar en el proyecto en el año 2007 han sido dos las razones principales para su retraso: la demora del permiso por parte del Gobierno Vasco y las inclemencias meteorológicas para poder realizar las labores de sellado.

Las obras de recuperación ambiental y sellado del vertedero constan de nueve pasos fundamentales, que solo se pueden llevar a cabo con tiempo seco: conformado, regularización de tierras, drenaje de lixiviados y aireación, geosintéticos, drena-

jes de aguas, tierras de restauración, superficie final, obras de acondicionamiento de viales y protocolo de controles. La gran parte del sellado ya está terminada, pero falta aproximadamente con tiempo seco un mes de trabajo para darlo por concluido, y posteriormente empezar con la última fase de las obras del área de esparcimiento y ocio.

74.000 metros cuadrados se recuperan en Berrizburu para el ocio de los y las berriztarras. Ya se han construido dos frontones y están terminando la zona de deporte polivalente. El parque también contará con una zona para practicar todo tipo de deporte rural, un paseo con circuito de ejercicios físicos para personas mayores, un parque infantil y una zona social con mesas, caseta y fuente.

LABURREAN

Euskaraz trebatzeko

Euskararen erabilera sustatzeko hainbat ekitaldi dabil Udala egiten. Ezagutzari begira, aurten ere, goiz, eguerdi eta iluntzetan AEKrekin batera euskara ikastaroak ematen dira. Guztira, 37 ikasle dabil. Euskaraz jarduteko Berbalagun topalekura ere deialdia zabalik dago, eta orain arte 12 lagunek eman dute izena. Institutuko ikasleak eta guraso gazteak ere, euren arteko hartu-emanetan euskara gehiago erabili ahal izateko, programa berezietan parte hartzen dabilta. Eusluderrak izenekoan, gazteak eurak dabilta euskara gehiago erabili ahal izateko motibazioa lantzen. Gurasoak, berriz, AEKrekin egunerokoan eta familia jardunean euskararen presentzia zelari areagotu aztertzen dabilta.

Gogoratu, bestetik, abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna dela. Lehenengoz, euskarazko liburuen bigarren eskuko azoka egingo da. Azaroan zehar, liburuak batuko dira institutuan, liburutegian eta Gaztelekuan. Liburuak eramatean duenak txartela jasoko du azoka egunean nahi duen beste liburu eskuratzeko. Ekimenean parte hartzen dutenen artean liburu eta CD berriak erosteko txekoa zozketatuko da.

Herriko argazkiekin leihan

Hamairugarrenez argazki lehiaketa eratu du Udalak. Abenduaren 9ra arteko epea dago lanak aurkezteko. Gaia zabal da. Herriko bizitza, jaiak, ohiturak, kirola, arkitektura... arlo asko jasoko daitezke argazkietan. Zuri-beltzean zein koloretan egin daitezke eta euskarri zurrunean aurkeztu behar dira. Lau sari emango dira (nagusia, 250 eurokoa). Lan guztiak Kultur Etxean erakusgai ipiniko dira.

Zahartzearen erronkaz

Herriko nagusientzat hiru egunetako jardunaldia prestatu dute azaroaren 16tik 18ra. Zahartzearen erronkaz berba egiteko hitzaldia izango dute lehenengo egunean. Gero, *Cuidadores* filma ikusteko aukera izango dute. Eta amaitzeko, Getariako Balentziaga museora irteera. Jardunaldietatik aparte, menpekotasuna duten gaixoen zaintzaileentzat urrian hasita ikastaroa egiten dabilta. Menpekotasuna duten pertsonak mugitu eta egunerokoan gertatzen diren traba txikiak gainditu ahal izateko bitartekoak ezagutzeko ikastaroa da.

Denboraren bankua

Dagoeneko 19 lagunek parte hartzen dute Denboraren Bankuan. Gainera, Sartu zentruan formakuntza jasotzen dabilzanak ere proiektuarekin bat egin dute. Pastel bat egin, errekaduak egin, entxufeak jarri, hizkuntza klaseak eman... horrek dira trukatu diren ekintzak. Blog bat ere atondu dute ekimenaren berri emateko: <http://bancodel-tiempodeberriz.blogspot.com>

GAZTELEKUA, BARIKUTIK DOMEKARA GAZTEEN TERRITORIOA

Ibilbide berria hasi du Gaztelekuak ikasturte berriarekin. Pagotxa aisialdi taldeak hartu du gazteentzat bereziki prestatutako lekua kudeatzeko ardura. Berrizko gaztez osatutako taldea da Pagotxa, eta udako ekintzak antolatzea izan da euren lehen esperientzia.




antolatzea izan da euren lehen esperientzia.

Barikutik domekara, orain, Gaztelekua zabaldu eta kudeatzen dute, 16:30etik 20:30era. Gaztelekua 12 eta 16 urte bitarteko gazte txoei zuzenduta dago, hau da, DBH 1. mailatik DBH 4. mailako ikasleei. Normalean ostiralak libre uzten dituzte,

apur bat gazteak euren airea ibili eta aste guztiko estresak eta betebeharrak ahazteko. Larunbatero gazteek proposatutako ekintza edo tailerren bat programatzen da, eta igande guztietan antzerki tailerra egiten da.

Urtea amaitu arte ekintza eta tailer ugari aurreikusten dituzte: dekorazio tailerra, frontenis txapelketa mistoa, sabel dantza ikastaroa, Euskararen eguna ospatzea, Durangoko Azokara bisita, Olentzero abestera joatea edota urteko azkenengo festa prestatzea eta egitea. Urtarriletik aurrera, berriz, bi-hiru eguneko kanpaldia edota eskiatzera joateko irteera antolatzeko asmoa daukate. Gaztelekuan parte hartzeko ez da inon izenik eman behar. Nahikoa da, zabalik dagoen eta bakoitzak ondoen daukan orduan bertaratu eta begiraleekin berba egitea, egin nahi direnak proposatzea eta parte hartzen hastea.



Oroimen Eguna. Irailaren 11, Oroimen Eguna da Berrizen. 1936ko gerrako biktimak gogoratzen ditugu herrian. Hildakoak, preso sartu zituztenak, erbesteratu behar izan zutenak. Aurten, Oroimenaren Bidean, biktimari gogoratzeko plaka ipini da. Bost hildakoren argazkia eta euren familiartekoei bidalitako gutunetan esandakoen pasarteekin gorazarre berria egin zaie. Ekimena, beste urte batez, Berriz 1936 Gogoratzen Elkartarekin batera antolatuko da.

El Ayuntamiento de Berriz ha contratado algunas personas para llevar a cabo varios trabajos. Estas contrataciones están dentro del programa de creación de empleo que se puso en marcha la pasada legislatura, y se ha contado con ayuda de Lanbide.

Para ello se han tenido en cuenta los criterios que marca Lanbide a la hora de contratar a las personas: estar en situación de desempleo y no cobrar la prestación de Lanbide son las principales condiciones. El Ayuntamiento, por su parte, debe seleccionar el 30% entre los que perciben la renta de garantía de ingresos, y el 40% deben ser personas entre 18 y 30 años. Por último, a la hora de la contratación se cotejan la base de datos propia del Ayuntamiento y la de Lanbide.

Las últimas contrataciones han sido por valor de 176.000 euros, de los que 104.000 euros han sido subvención de Lanbide.

CAMINOS VECINALES

Uno de los trabajos que se lleva a cabo gracias a estas contrataciones, son los arreglos de los caminos vecinales. Todos los años se hace alguna intervención arreglando las vías principales hacia los diferentes barrios del municipio. Este año, entre otras, se han acondicionado cunetas en el camino hacia Andikona en Besoita y el caserío Zubeltza. También se ha reforzado un tramo de este camino que mostraba hundimiento lateral. Y ahora, las obras se

Contrataciones en el Ayuntamiento vía Lanbide



han trasladado al camino entre Ereña y Eitua, donde se reparará el firme y se acondicionarán cunetas.

BOLSA DE DATOS DE EUSKALDUNES

El Ayuntamiento renovará la base de datos de personas euskaldunes para trabajos como dar clases particulares, cuidado a menores, monitores-monitors deportivos,... El Ayuntamiento únicamente se compromete a hacer de intermediario entre la persona que solicita alguno de estos servicios en euskera y la persona que apuntada en la base de datos este interesada en ofrecérsela.



Kanpandorretik herriko ondarea

Aurten lehenengoz hartu du parte Berrizek Ondarearen Europako Jardunaldietan. Esperientzia arrakastatsua izan da. Urriaren 9an, herrian zehar, Juan Ramon Iturriza historiagilearen testuak oinarri hartuta, bisita gidatuak egin ziren eta elizako kanpandorrera igotzeko aukera ere izan zen. Elizpean, berriz, aintzinako ofizioak ezagutzeko artisauen erakusketa ipini zen. Guztira 70 lagunek parte hartu zuten ekimenean.

Donejakue bidea Burgostik



Ages-Hontanas, Burgosko herri bien artean egin dituzte argazkiko berriztarrek Donejakue bideko etapa berri bi. Orain hiru urte hasi ziren Berrizburu kiroldegia antolatuta bidea egiten eta urtero, udaberrian eta udazkenean, bi asteburutan hitzordua izaten da. 12. eta 13. Etapak Burgosko probintzian zehar egin zituzten urriaren 15ean eta 16an 34 lagunek.

BERRIZKO AGENDA

AZAROAK 18

18:00. Ume-antzerkia: *Sailuk hartz txikiaren bidaia*, En La Lona. Kultura etxean. 1€-2€.

AZAROAK 25

18:00. Errebindikazioa: *Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguna*. Ostean, *Nagore* filma eta "Beldur barik" lehiaketako sari-banaketa.



AZAROAK 27

20:00. Antzerkia: *Gezurrezko printzea*, Txirene. Kultur etxean. 5€.

ABENDUAK 2

18:00. Ume-antzerkia: *Katillukadak*, Kontakatillu. Kultur etxean. 1€-2€.

19:30-21:00. Kantu poteoa: Taberna ibiltaria.

Bertso-afaria: Miren Amuriza eta Amets Arzallus.

ABENDUAK 3

Euskararen Nazioarteko Eguna. Umeentzat tailerra eta euskarazko bigarren eskuko liburuen azoka:

11:00-13:00 / 17:00-18:30.

Disko Festa, Olakueta probalekuan, 18:30-20:00.

Musika: Gu Gira kantaldia (Niko Etxart, Txomin Artola, Urko, Gorka Knörr). Olakueta frontoian, 20:00etan. 5€.



ABENDUAK 9

XIII. Argazki Lehiaketara lanak aurkezteko epe amaiera; udaletxean edo kultur etxean.

ABENDUAK 10

20:00. Antzerkia: *Gure bide galduak*, Dejabu Antzerki Laborategia. Kultur etxean. 8€



ABENDUAK 14

19:00. Tailerra: gizarte laguntzen gaineko informazioa zelan eskuratu. Anbulatorio zaharrea.

ABENDUAK 16

18:00. Ume-antzerkia: *Ezetz hegan egin*, Teatro Paraiso. Kultura etxean. 1€-2€.

Sari-banaketa: 13. Argazki lehiaketa eta erakusketa inaugurazioa.

ABENDUAK 17

20:00. Antzerkia: *The Full Monty* (estreinaldia), Txintxaun Kolektiboa. Kultur etxean. 5€.



ABENDUAK 23

18:00. Ume-antzerkia: *Gabon kontu berriak*, Deabru Beltzak. Kultura etxean. 1€-2€.

ABENDUAK 24

Olentzero eta Mari Domingi. Goizean auzoetatik ibilaldia. Arratsaldean, udaletxetik Olakuetara kalejira eta opari-banaketa.

ZINE KARTELERA

AZAROAK 18-20

Mientras duermes (22:00-19:00)

AZAROAK 20

Mystical (11:30)

AZAROAK 22

La chanson de Roland (19:30)

AZAROAK 25-27

Crepúsculo: amanece (18:00-17:00)

AZAROAK 29

Bertsolari (19:30)

ABENDUAK 2-4

No hay país para los malvados (22:00 - 19:00)

ABENDUAK 4

Katu bat Parisen (11:30)

ABENDUAK 9-11

Las aventuras de Tintin (18:00-17:00)

ABENDUAK 16-18

Urteberri On Amona (22:00 - 19:00)



Berriz Elizateko Udala

BERRIZKO TELEFONOAK

UDALETXEA94 682 40 36
OSASUN ETXEA.....94 623 61 00
KIROLDEGIA94 682 62 44
KULTUR ETXEA94 682 78 60

ERRETIRATUEN ETXEA.....94 682 48 66
LEARRETA-MARKINA.....94 682 43 44
DBH Institutua.....94 682 49 62
HAURRESKOLA.....94 682 63 39